

**LIBURUAK**

**Izenburua:** 'Timuti jirafa' eta 'Lata baten gorabeherak'. **Testua:** Begoña Ibarrola.  
**Marrazkiak:** Vivi Escriba eta Teresa Novoa, hurrenez hurren. **Itzulpena:** Miren Agur Meabe.  
**Orrialde kopurua:** 28na orrialde.  
**Bilduma:** Sentipuinak. **Argitaletxea:** Elkar.

**Begoña Ibarrola**

EGILEA

## «Haurrek emozioak identifikatzen ikasteko osagarri ona da bilduma»

Irakurtzeko ez ezik, sentitzeko ipuinak dira Begoña Ibarrolak Sentipuinak bilduman bildu dituenak. Bederatzigarren zenbakia da *Timuti jirafa*, eta hamargarrena *Lata baten gorabeherak*. Emozioen esanahiaz eta garrantziaz jabetzeko kontaktuz aporposak.

**Haurrei, oro har, kostatzen zaie emozioen inguruan hitz egitea. Hori da, baina, zure liburuen ardatza.**

Orain dela hamar urte ilustraziorik gabe argitaratu nuen liburu batean oinarriturik dago bilduma. Garai hartan ez zen batere hitz egiten sentimenduen inguruan, dimentsio emozionala ez zen kontuan hartzen. Niri, psikologoa naizenez, interesgarria eta polita otu zitzaidan halako gaiak ipuinen bitartez jorratzea. Haurrek askotan ez dakite nola erantzun bazterketaren edo jeloskortasunaren aurrean. Ipuinak tresna baliotsuak dira horretarako. Orain, agian, gehiago hitz egiten da, eta haurrak euren sentimenduetaz mintzo dira. Hori da idazten ditudan liburuen xedea: ondo pasarazteaz gain, haurren emozioak kudeatzen laguntzea.

**Zein sentimendu jorratzen dituzu *Timuti jirafa* ipuinean?**

Bazterketa. Adiskidetasunaz hitz egiten da, baina, ezkutuan, beste-

ak desberdin izateagatik mespretxatzeak duen eraginaz. Ume asko baztertu egiten dituzte besteak bezalakoak ez izateagatik. Gainontzekoak gaizki tratatzeak jirafaren gain duen eragina ikus daiteke ipuinean. Ez du lagunik, ez diote laguntzen. Portaera aldatzean, besteak ere aldatzen dira. Arreta ez dugu desberdintasunetan jarri behar, garrantzitsuena guztiak lagunak izatea da. Hori da irakaspena.

**Ilusioa da *Lata baten gorabeherak* istorioaren ardatza.**

Baikortasunari gorazarre egiten dio. Bere edukia kentzen diotenean, oso gaizki sentitzen da ontzia, horretarako jaio dela uste baitu.

Baina, bat-batean, mundu berri bat eza gutzen hasiko da. Krisi egunotan baikor izateko arrazoiak aurkitu behar ditugu. Haurrentzat, ilusioaren irakurketa dago, gauza berriak aurkitzea. Bada, baita ere, helduentzako liburua, ametsen garrantzia, oztopen aurrean aurrera jarraitu behar dela. Motibazioak izatea zein polita den adierazten du.

**Hasiera batean hain hutsala dirudien objektua izugarri bizia da azkenean.**

Birziklatzearen gaia dago hor agerian. Kontsumo gizartea berraztertu beharraz jabetzeko balio du. Potoari erabilera berriak asmatzeko aukera ematen du ipuinak. Gertatu izan da, hainbat eskolatatik deitu

bainaute hori kontatzeko. Interesgarria da haurren sormena garrantzea, nahi dioten amaiera eman diezaiotela ipuinari.

**Zeinentzat da bilduma?**

2002an 46 ipuin elkartu nituenean, ilustraziorik gabe, helduentzatzat zen, haurrei irakur ziezaieten. Bilduma, baina, haurrentzat da, ilustrazioak oso erakargarriak baitira. Sentimendu bakarra hizpide edukitzeak hura hobeto lantzea dakar. Horrek ez du esan nahi ume txikiarentzat denik soilik, gurasoentzat interesgarria izan baitaiteke. *Lata baten gorabeherak* Lehen Hezkuntzan irakurri izan dute, birziklatpenaz eta gai sakonagoez hitz egiteko.

**Sentipuinak bildumako bederatzigarren eta hamargarren liburuak dira. Arrakasta duten seinale.**

Ikastoletan aurretik landu zituzten, hezkuntza emozionalari buruzko hainbat ikastaro eman dituzdalako. Elkarrek liburuak itzuli zituenetik badute materiala. Bildumak erantzun eta laguntza handia ematen die irakasleei eta gurasoei. Oro har, gurasoek erosten dituzte nire liburuak, entretenigarriak izateaz gain, plus bat dutela antzematen baitute, haurrei zail egiten zaizkien gaiak ageri direlako. Amaren batek idatzi izan dit, semearen arazoez liburuei esker jabetu dela esateko. 5 urteko haur baten arazoak liburu bati esker azalarazten dira. Nolabait badira ipuin terapeutikoak: bihotzarekin konektatzeko aukera ematen dute.

**Zein dira bildumaren helburuak?**

Pertsonen emozioak lantzea eta horri garrantzia ematea da xede nagusia. Eskoletan eta hainbat familian alboratu egiten da. Sentimenduak nola adierazi ez dakiten haurrengan min handia dago. Umeak heztean, garrantzia eman behar zaie emozioei, batez ere ikus dezatela guztiak ditugula sentimenduak, normala dela zerbait sentitzea. Garrantzitsuena haurrek euren emozioak identifikatzen ikastea da. Horretarako osagarri ona da Sentipuinak bilduma.